



MEMBER OF BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE



**2024
URTEKO
TXOSTENA**



MEZUA	03
-------	----

GURI BURUZ	05
------------	----

DATUAK	07
--------	----

ESPEZIALIZAZIO
TEKNOLOGIKOKO PLANA

TEKNOLOGIAK	11
-------------	----

Elikagaien Diseinua	12
---------------------	----

Esneki Zentroa	17
----------------	----

Osasuna	22
---------	----

Garraio Jasangarria	26
---------------------	----

INSTALAZIO BERRIETAN INBERTSIOAK	30
-------------------------------------	----




HASIERA

ERRONKAK	31
----------	----

KONPROMISO SOZIALA	32
--------------------	----

ANTOLAKETA OROKORRA	34
---------------------	----



Iosu Ogiza Gerediaga

LEHENDAKARIA



Jon Anakabe Onaindia
ZUZENDARI NAGUSIA

Une erabakigarria bizi dugu. Dagoeneko eztaba daezina da gure garapen ereduak sistema jasangarriago, erresilienteago eta bidezkoagoetara aldatzeko beharra. Zientziak eta berrikuntzak oinarri izan behar dute erronka global handietarako irtenbide eraginkorrak eraikitzeko: klima aldaketa, biodibertsitatearen galera, elikagaien segurtasuna edo pertsonen osasuna. Testuinguru horretan, Leartikerren gero eta erantzukizun handiagoa dugula onartzen dugu:

“ezagutza erabilgarria, transferigarria eta Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrokatua sortu behar dugu.

Leartikerren, tinko jarraitzen dugu gure sorrerako helburuan: planetari zein Pertsoneri mesede egingo dien berrikuntza bultzatzea, gure ingurunean kalitatezko eta balio ekonomikoko enplegua sortuz, gure nortasun eta kultura kooperatiboa bistatik galdu gabe. **2024an gure I+G jarduera sendotu da**, eta gure ildo estrategikoak indartu dira: batez ere, **material polimerikoen modelizazio digitalean, polimero jasangarrien garapenean, organ-on-chip gailu mikrofluidikoetan, ehunen ingeniartzean eta prozesuen optimizazioan eta elikagaien garapenean.**

Aurten **bi patente berriren eskaera** egin dugu, bata organ-on-chiperako egokiak diren kultibo zelularreko gailuen esparruan eta bestea bateria gelaxketarako egitura polimerikoen esparruan. Era berean, gure posizionamendu teknologikoa indartzen duten **sekretu industrial berriak babestu** dira. Horrekin, Leartikerrek **ikerketa industrialaren aldeko apustua indartu** du, etorkizunean bere aktibo babestuen lizentzietatik eratorritako diru sarrerak handitzen jarraitzeko.

Bederatzi argitalpen zientifiko ere egin ditugu, eta horietatik bost artikulu zientifiko lehen kuartileko aldizkarietan (Q1) izan dira, **gure ekoizpen zientifikoaren kalitatea eta garrantzia** islatuz. Arlo ekonomikoan, gure plan estrategikoan negozio bolumenerako proiektatutako joera betetzen jarraitzen dugu. Nabarmentzekoa da **nazioarteko fakturazioaren igoera**, batez ere material polimerikoen modelizazio digitalaren eta produktuaren garapen birtual azeleraturako biki digitalen ustiapenaren arloko I+G proiektuetatik eratorritako diru-sarrerek bultzatuta.

Uztailean, Leartiker **oinarrizko kooperatiba** gisa inskribatu zen, eta **MONDRAGONeko Ezagutza Dibisio berrian integratu** zen. Mugari horrek aukera emango digu interkooperaziorako tresnak eta posizionamendua indartzeko. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren (AZPI-TEK programa) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren (Transferentzia Teknologikoko programa) laguntzari esker, polimeroen karakterizazio dinamiko aurreratuko eta ehun-ingeniariatzako eta mikrofluidikako **azpiegitura berriak** sartu ditugu, gure gaitasun zientifiko eta teknologikoetan aurrera egiten jarraitzeko. Aldi berean, **elektrizitate berri>tagarria sortzeko panel fotovoltaikoak instalatu** ondoren, Markina-Xemeingo Lea Artibai Berrikuntza Gunean kokatuta dagoen gure egoitzak ingurumen inpaktua hobetu du.

“
nazioarteko fakturazioa
handitzea, batez ere
material polimerikoen
modelizazio digitalaren eta
produktuaren garapen
birtual azeleraturako
biki digitalen ustiapenaren
arloko I+G proiektuetatik
eratorritako diru-sarrerek
bultzatuta.

Gainera, gure ingurunearekiko loturaren aldeko apustua egiten jarraitu dugu. Esneki Azokaren edizio berri bat antolatu genuen Erika eta Tolosako Udalarekin batera, eta Euskadiko esneki sektorean erreferentziazko hitzordu bilakatuz. Ildo horretan, Leartiker, bere **Esneki Zentrotik, HAZI Fundazioarekin eta Markina-Xemeingo Udalarekin koordinatzen jarraitzen du, euskal esneki sektorerako erreferentziazko zentroa bultzatzen jarraitzeko**. Proiektu honek esnekien ekoizleentzako topagune bihurtu nahi du, sektorearen egungo erronkei aurre egiteko tresnak eta ezagutzak eskainiz, hala nola digitalizazioa, berrikuntza eta teknologia berriak.

Txosten hau ixteko, eskerrak eman nahi dizkiegu Leartiker osatzen duten Pertsona eta erakunde guztiei: bazkide laguntzaileak eta akziodunak, bezeroak, erakundeak eta, batez ere, gure giza-taldea. Eguneroko konpromisoari, ilusioari eta ahaleginari esker, aurrera egiten jarraitzen dugu. Kooperatiba bat gara, eta lankidetzan aritzea da ezagutza eta etorkizuna eraikitzeko gure tresnarik onena.

BAGOAZI!

ELIKAGAIEN TEKNOLOGIAN ETA POLIMEROEN TEKNOLOGIAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRO TEKNOLOGIKOA GARA

MARKINA-XEMEINen (Bizkaia) kokatuta dagoen Zentro Teknologikoa gara, Elikagaien Teknologian eta Polimeroen Teknologian espezializatua. Gure xedea enpresa-ehunari balioa ematea da, I+G+b jardueraren eta haren transferentzia egokiaren bidez.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kide gara (Foku Anitzeko Teknologia Zentro gisa), baita Basque Research & Technology Alliance (BRTA) aliantza teknologikoko kide ere. Gainera, irabazi asmorik gabeko kooperatiba bat gara, MONDRAGON korporazioaren parte, lehen euskal enpresa taldea eta munduko kooperatiba handiena.

“ Leartiker proiektua elkarlanean eraikitzen dihardugu, ezagutza balio erantsi bihurtuz, dibertsifikazio-prozesuak erraztuz eta lanpostu berriak sortuz, batez ere tokiko eremuan.

○ INPLIKAZIOA
○ KONFIANTZA
○ ZERBITZURAKO GRINA
○ POSITIBISMOA
○ ZORROZTASUN ZIENTIFIKOA

Ibilbidea

2000

I+G+b

Polimeroen
Teknologia eta
Elikagaien
Teknologia

2005

ZTBES
AKREDITAZIOA

Berrikuntzarako
Bitarteko
Eragilea

2016

LTK 2020

Plan Estrategikoaren
definizioa



2021

ESNEKI ZENTROA

Euskal Herriko lehen Esneki Zentroa

ZTBES AKREDITAZIOA
BERREGIAZTATZEA

Foku Anitzeko Zentro Teknologikoa

BRTA

Basque Research and Technology Alliance



2002

ESKUALDEAREN
GARAPENERAKO
EREDUA

Formakuntza, I+G+b eta
enpresa sustapena

2015

Learntiker, S.Coop.
ZTBES AKREDITAZIOA
BERREGIAZTATZEA

Zentro Teknologiko Sektoriala

2020

LTK 2025

Helburuak beteta
eta Plan Estrategiko
berria




2024

MONDRAGON
EZAGUTZA
DIBISIOA



MONDRAGONen oinarritzko
kooperatiba eta Ezagutza
Dibisioan integratu

GURI BURUZ

Sarrerak



Pertsonak



Lantaldearen batez besteko adina

Adierazle zientifikoak

Nazioarteko proiektuak



Artikulu zientifikoak



Q1 artikulu zientifikoak



Eskatutako patenteak



Doktoreak



DATUAK

Bazkide laguntzaileak eta akziodunak

Erakunde publikoak



Unibertsitateak, ikerketa-zentroak eta zentro teknologikoak



Ospitaleak

Enpresak



Elkartekak



Kolaborazioak

DATUAK



Elikagaien Teknologia

“

Learntiker Elikagaien Teknologiako helburu nagusia produktu berritzaile osasungarriak eta jasangarriak garatzea da, tokiko lehengaien erabilera sustatuz eta elaborazio-prozesu naturalak erabiliz (gutxi prozesatuak). Esnekien espezialitateari dagokionez, EAEn artisau-esnearen sektorean erreferente izateko lan egiten da etengabe.



ELIKAGAIEN DISEINUA



ESNEKI ZENTROA



Elikagaien Diseinua

Balio erantsiko produktu osasungarri eta jasangarri berriak garatzen ditugu, landare edo animalia jatorriko tokiko lehengaietatik abiatuta.

Ikerketa-esparruak:

PRODUKTU BERRIEN GARAPENA

PRODUKTU HARTZITUAK



IDEIATIK MERKATURA



“

Ulertu, diseinatu, garatu eta balioztatu egiten dugu.

ELIKAGAIEN DISEINUA

PROIEKTUAK

IDEIATIK MERKATURA



BARRUKI

V. gamako plateren garapena behi-kanalaren aprobetxamendurako.



DELIFUNGUS

Onddoetatik abiatuta, proteina disolbagarrien ekoizpena ikertzea eta garatzea plater begano likidoetan proteina-iturri gisa erabiltzeko.



FERVERG

Hartzidura, fruta eta barazkietan produktu berritzaileak garatzeko alternatiba gisa.



JASON II

Elikadura osasungarri eta jasangarriaren sustapena.

ELIKAGAIEN DISEINUA

PROIEKTUAK

IDEIATIK MERKATURA



PATXAFERM

Patxa, sagardo naturalaren ekoizpenetik ateratako azpiproduktuaren balioa handitzea, produktu hori egonkortuz eta "NoLo" edari hartzitu berriak garatuz.



GERMILEK

Euskadiko bertako babarrunaren kalitate-nutrizionala hobetzea erneketaren bitartez.



MUSKA

Errute-oiloaren balioa handitzea tokiko lehengaiekin produktu berriak garatuz.



DELAC

Azido laktikoaren eragina azterketa, gehigarriak gabeko haragi-prestakinak garatzeko behi-aziendaren kanalak deskontaminatzeko metodo gisa.

ELIKAGAIEN DISEINUA

PROIEKTUAK

IDEIATIK MERKATURA



LANDET XO SUKALBERRI

Sukaldaritzaren sektorerako tokiko oilasko-eratorrien ekoizpena, goi-mailako kalitatea, gertukoak eta ekoizpen jasangarriko produktuak eskaintzeko.



BEHIKI RESTAURACION

Jatetxe-erlako kontsumo-eredu berrietarako haragi-deribatu egosiak garatzea.



SUKALOZPIN

Sagar ozpinean oinarritutako ostalaritzari bideratutako saltsen garapena.



Esneki Zentroa

Esne Zentroak gazta eta esneki produktu berrien garapena, lehengaiaren eta ekoizpen-teknologiaren inguruko ikerketa, aholkularitza tekniko aurreratua eta prestakuntza espezializatua bezalako hainbat zerbitzu jartzen ditu zure eskura.

Ikerketa-esparruak:

ESNEA Konposizioa eta ezaugarri mikrobiologikoak aztertzea.

SEGURTASUNA Esneki produktu seguruak bermatzeko arriskuak eta prozesuak identifikatzea.

TEKNOLOGIA Gaztak eta horien eratorriak elaboratzeko eta ontzeko funtsezko parametroak.



Gure Esnea,
Gure Ekoizleak,
Gure Osasuna.



“

Gure erronka ekoizle txikien dibertsifikazioa eta lehiakortasuna bultzatu eta berritzeko grina piztea da.

ESNEKI ZENTROA

PROIEKTUAK

GURE ESNEA, GURE EKOIZLEAK,
GURE OSASUNA



ONDTEK

Ardi gazta onduaren ekoizpen prozesuaren balioztatzea, erreferentziazko balio fisiko-kimikoen parametrizazioaren bidez.



EZtaphTox

Elikagaietan *S. aureus*-en enterotoxinak ekoiztea eragiten duten faktore eta gen erregulatzailerak.



GAZTANOLA

Gazten afinazioan egurrezko apalak erabili ahal izateko eskaera-prozesuan aplikatu daitezkeen ebidentziak lortzera begira bideraturiko ikerketa.



KNOW N CHEESE

POCTEFA lurraldeko esnekien eta gazten sektore tradizionaleko enpresa txiki eta ertainen lehiakortasun-potentziala handitzea, iraunkortasunaren arloko ezagutza transferituz.

ESNEKI ZENTROA

PROIEKTUAK

GURE ESNEA, GURE EKOIZLEAK,
GURE OSASUNA



GAZTAGORRI

Gastronomía sektorerara bideratutako gazta berritzailearen garapena.



2 BERRI

EAEn Latxa ardi-esnearen gazta berritzaileak ekoizteko bi prozesu garatzea.



BATZALDI

Jetzialdi bakarreko ardi esnearen gaitasun teknologikoaren ikerketa gaztagintzan.



ELAMINA2

Elaborazioan eta heldutasunean proteolisi-gradu handiak dituzten gaztetan dauden amina biogenoak ezabatzeko estrategiak baloratzea - 2

ESNEKI ZENTROA

PROIEKTUAK

GURE ESNEA, GURE EKOIZLEAK,
GURE OSASUNA



GAKE

Abeltzaintza birsortzaile bidez lortutako
esnearekin ekoizturiko esne hartzitu
berritzaileen garapen jasagarria.



BEHIAR

Ekoizpen ekologikoan oinarritutako gaztagintza
dibertsifikazioa.



CAPRITXO

Ahuntz-esnearen balorizazioa, likorea
egiteko ekoizpen-prozesu bat garatuz.


Polimeroen Teknologia

“

Leartiker Polimeroen Teknologia material polimerikoekin fabrikatzeko diseinuaren kontzeptuan zentratuta dago, hainbat material garatzetik hasi eta horien fabrikazio-prozesuetara arte, materialen eta produktuen karakterizaziotik eta horien simulazio digitaletik (in silico) igaroz.



OSASUNA



GARRAIO
JASANGARRIA

Osasuna

Material polimeriko biobateragarri berriak, sektore biosanitarioan erabiltzeko.

Ikerketa-esparruak:

MICROFLUIDIKA PoC, LoC eta OoC gailuak injekzio-teknologiaren bidez.


EHUN-INGENIARITZA (Bio)inprimaketa-teknologia bidez, lortu nahi den ehunaren arabera, 3D egituren fabrikazioa (hidrogelak eta termoplastikoak) eta zelula-terapietarako mikrogelen garapena.

APLIKAZIO MEDIKOETARAKO GAILU

POLIMERIKOAK Profesional medikoentzako gailu polimerikoak; irudi medikoen tratamendua, pazientearen araberako pertsonalizazioa.



IDEIATIK PAZIENTERA



“

Lankidetza estua osasun-
ikerketako ospitale eta
institutuekin.

OSASUNA

PROIEKTUAK

IDEIATIK PAZIENTERA



LAIKA

Alginato eta azido hialuronikozko sare barneratzaileetan oinarritutako kartilago artikular baten in vitro garapena.




imiTEM

Tumore matrize estrazelularren propietate biskoelastikoak, bularreko minbiziaren balizko biomarkatzaile gisa.



BihoBeat

Giza eskalako ehun kardiakoen heldze-maila hobetzeko teknologia berri bat garatzea estimulu fisiologikoen bidez.



LORHY

Mikromekanizazio-teknologien konbinazioa gailu mikrofluidikoen ekoizpen industrialerako.

OSASUNA


PROIEKTUAK

IDEIATIK PAZIENTERA



BILCHIP

Organ-on-a-chip teknologia bidez behazun minbizi-eredu bat garatzea, bere biologia aztertzeko eta terapia berriak probatzeko.



bmG24

Fibrosiari lotutako biriketako hipertentsioaren diagnostiko eta jarraipen terapeutikoko biomarkatzaileei eta metodo alternatiboei buruzko elkarlaneko ikerketa.




BRAV3

Bioingeniaritzako biomekanika konputazionala eta 3D inprimaketa, bihotz kaltetuei euskarri funtzional iraunkorra emango dien bentrakulu-laguntzako gailu biologiko birsortzaile pertsonalizatua garatzeko.

OSASUNA


PROIEKTUAK

IDEIATIK PAZIENTERA



LAMIPoC

POC diagnostikorako gailu mikrofluidikoen laser bidezko mikrofabrikazioa.



CARDIOPRINT

Konputazionalki modelatutako giza eskalako bihotz-ehun terapeutikoak sortzeko funtzio anitzeko 3D biofabrikazio aurreratua.



SIMINSITU

In-silico garapenerako eta entsegu klinikoetarako plataforma ehun-ingeniartzako bihotz-balbulen gailuak in-situ probatzeko.

Garraio Jasangarria

Garraio-sektoreko osagai polimerikoak garatzea, materialaren diseinutik hasi eta bizitza baliagarria amaitu arte.

Ikerketa-esparruak:


**MATERIAL POLIMERIKO JASANGARRI
BERRIEN DISEINUA ETA GARAPENA**

**PRODUKTUEN ETA PROZESUEN
GARAPENA**

**ERRENDIMENDU TERMOMEKANIKOAREN
EBALUAZIOA ETA IRAGARPENA**



ERRONKAK
MUGIKORTASUN
AUKERA BIHURTZEN



“

Balio-katearen estaldura
INTEGRALA.

GARRAIO JASANGARRIA

PROIEKTUAK

ERRONKAK MUGIKORTASUN
AUKERA BIHURTZEN



IMPLICIT

Fabrikazioko lehengai osagarriak
berreskuratzea eta berrerabiltzea.



ELASTBAT

Digitalizazioa eta kontrol adimenduna batera
moduluetarako TPE produktuak eta horien
ekoizpen prozesua ikertzeko.



TICS-BONITO

Berrikuntza hegaluze-arrantza jasangarriago
baterako.

GARRAIO JASANGARRIA


PROIEKTUAK

ERRONKAK MUGIKORTASUN
AUKERA BIHURTZEN



BIRSARE

Ekonomia urdinaren alorrean, arrantza-sareak birziklatuz, balio-kate zirkular berriak aztertzea eta garatzea.



F3 PERTE VEC

Automozioeko aplikazioetarako produktu polimeriko aurreratuen diseinu azeleratua, biki digitalen metodologiaren bidez.




CRITERION

aCcelerate cReep lifeTimE pRedictiON.

GARRAIO JASANGARRIA

PROIEKTUAK

ERRONKAK MUGIKORTASUN
AUKERA BIHURTZEN



CARBOBRAKE

Karbono-zuntz lodiko freno-kalibragailu indartu bat garatzea, goi-mailako errendimenduko automobilgintzako aplikazioetarako.



CICE2023

Energia biltegitatzeko, prozesatzeko eta digitalizatzeko material berrien ikerketa.



COMBINE

Ibilgailu elektrikoetarako osagaien garapena, Polimeroen Gaininjekzio eta Soldadura Teknologien bidez.

INSTALAZIO BERRI ETAN INBERTSIOAK



METRAVIB DMA +2000

Material konposatuen propietate dinamikoak eta material elastomerikoen Fatigue Crack growth ikertzeko.

AZPITEK 2023



BIOMATERIALEN LABORATEGIA

3D inprimaketa eta compounding bidez ehun biologiko ezberdinen fabrikazioa.

Tumoreen 3D ereduen garapena.

Zelula-terapietarako mikrogelen garapena..

BFA TI 2023



PLAKA FOTOVOLTAIKOEN INSTALAZIOA

Next Generation EU funtsak –
Suspertze, Eraldaketa eta
Erresilientzia Plana



MIKROFLUIDIKA LABORATEGIA

Diagnostikorako (PoC) edo Organ-on-chip (OoC)
gailuen garapena.

BFA TI 2023

ERRON KAK

PLAN ESTRATEGIKO BERRIA

Ezarritako erronkak lortu eta Leartiker 2025 Plan Estrategikoa arrakastaz amaitu ondoren, etorkizuneko Leartikerrera ibilbide orria definituko duen asmo handiko plan estrategiko berri bat adostu eta onartuko da, berrikuntzaren, bikaintasunaren eta konpromiso sozialaren aldeko gure apustua indartuz, gure ingurunearen garapen orekatura bideratutako begirada jasangarriarekin.

OINARRI TEKNOLOGIKODUN ENPRESA BERRIAK SORTZEA

Leartikerren aktibo babestuen zorrotik abiatuta, lehenetsitako aktiboen balorizazioa bultzatuko da, start-up berri batera transferituz, laguntza publiko-pribatuen babesarekin. Zentro teknologiko batetik enpresak sortzea erronka pozgarria da guretzat, balio kate estrategikoak osatzeko eta gure ingurunean kalitatezko enplegua sortzen aktiboki laguntzeko dugun bokazioarekin bat datorrena.

EUSKAL ESNEKI SEKTOREAREN ERREFERENTZIAZKO ZENTRO BERRIA

Leartikerrek, bere Esneki Zentrotik, HAZI Fundazioarekin eta Markina-Xemeingo Udalarekin koordinazio estuan, sendotasunez jarraitzen du aurrera egiten euskal esneki sektorearen erreferentziazko zentroa bultzatzeko. Proiektu estrategiko honek esnekien ekoizleentzako topagune eta lankidetza gunen bihurtu nahi du, sektorearen egungo erronkei arrakastaz aurre egiteko tresnak, ezagutza espezializatua eta laguntza eskainiz, hala nola digitalizazioa, berrikuntza eta teknologia berriak txertatzea. Nekazaritzako elikagaien sektorearen garapen jasangarriarekin eta tokiko ekoizpen sarea indartzearekin dugun konpromisoa indartzen duen ekimena da.

PERTSONAK ERDIGUNEAN.

Leartiker ikerketan eta garapenean lan egiteko munduko lekurik onena bihurtu nahi dugu, ingurune estimulatzaile eta aberasgarri bat sortuz bai taldea osatzen duten Pertsonentzat zein gure ingurune hurbilenarentzat. Talentua erakarri eta fidelizatu nahi dugu, gure nortasunarekin, esentziarekin eta balio diferentzialekin koherentea den antolaketa kultura erreal bat landuz. Proiektu ilusionagarria da, Pertsonak erdigunean jartzen dituen eta garapen profesionalaren eredu iraunkor, berezi eta eraldatzaile batekin dugun konpromisoa indartzen duena.

TALENTUA ERAKARTZEA ETA FIDELIZATZEA PROIEKTU ILUSIONAGARRI BATEKIN.

KONPROMISO SOZIALA

Garapen Ekonomikoa **Pertsonetikiko, Komunitatearekiko** eta **Ingurunearekiko** konpromiso erreal bati errotuta joan behar dela sinesten dugu Leartikerrren. Horregatik, urtean zehar hainbat ekintza bultzatzen ditugu, gure ekosistema osatzen duten pertsonen hezkuntzarekin, berdintasunarekin, inklusioarekin, jasangarritasunarekin eta ongizatearekin dugun inplikazioa islatzen dutenak.

Lan mundua belaunaldi berrietara hurbilduz, hainbat ikasle talde hartu ditugu gure instalazioetan, gure jarduera gertutik ezagutzeko eta bokazio goiztiarrak pizteko aukera emanez. Ildo beretik, ikasturte osoan zehar **TALENTATU** programan parte hartzen dugu, eskualdeko gazteak tokiko enpresa sarearekin konektatuz eta beren ingurune hurbilean dauden profil profesionalak erakutsiz.

Berdintasunari lotuta eta zientzian eta teknologian emakumea ikusarazteko hainbat jardueratan parte hartu dugu, hala nola emakume zientzialariekin eta teknologoekin egindako mahai-inguru batean, bai eta emakume erreferenteen posterrekin apaindutako erakusleihoen kanpainan ere, non gure ikertzaileetako batek ere parte hartu duen.

Inklusioarekin dugun konpromisoa indartu egin da Izarbidean elkartearekin burututako lankidetzaren bidez. **Izarbidean** dibertsitate funtzionala duten inguru honetako pertsonen osatutako elkarte bat da, eta harekin lankidetzan aritu ahal izan gara Gabonetako saskiaren antolaketan. Izarbidean elkarteko kideek sortutako eskulanak gure Gabonetako otzararen parte izan dira. Gu denon bihotzak ukitu dituen ekimen aberasgarria.



Enpresek aldaketarako eta garapen iraunkorrerako eragile gisa duten eginkizunean irmoki sinesten dugu. Horregatik, **2030 Agendaren** oinarriak txertatzen ditugu gure jardueran, eta modu aktiboan lan egiten dugu **Garapen Jasangarrirako Helburuetan (GJH)**.

Leartiker Markina-Xemeinen kokatuta dago, Lea-Artibai eskualdean, **euskara** arnasten den eremu batean. Bere sustapenean parte aktibo sentitzen gara, bai **Korrikan** bai **Euskaraldian** parte hartuz, gure hizkuntzaren sustapen eta normalizaziorako funtsezko ekimenak.

Era berean, uste dugu ongizatea eta barne kohesioa funtsezkoak direla erakunde osasungarri baterako. Horregatik, gure taldearen ezinbesteko hitzordu bihurtu diren jarduerak antolatzen ditugu urtero: **LTKONKIS** – talde erronkak gainditu eta disfrutatzeko jardunaldi ludikoa –, **Gabonetako gure bazkari tradizionalak** eta **Santa Eufemi** ospakizuna, mendi ibilbidea eta paella-jana. Gainera, pilates saioak abiatu ditugu, langile guztientzat eskuragarri, autozainketa eta osasun fisiko eta mentala sustatzeko.

Ekintza horiek guztiak ingurune bidezkoago, berdintasunezkoago, inklusi-boago eta osasungarriago batekin dugun eguneroko konpromisoaren parte dira.



KONPRROMISO SOZIALA

Kontseilu errektorea:

Lehendakaria:

Iosu Ogiza Gerediaga
Fundación MONDRAGON

Lehendakariordea:

Mikel Isasi Iriondo
Leartiker

Idazkaria:

Naiara Andonegi Mendizabal
Leartiker

Bokalak:

Xabier Ozerinjauregi
Ozerinjauregi
BATZ

Mikel Larrea Azpeitia
Eroski

Imanol Pérez Beristain
Lea Artibai Ikastetxea

Zuzendaritza kontseilua:

Zuzendari Nagusia:

Jon Anakabe Onaindia

Borja Angulo Zubizarreta

Idoia Egaña Uranga

Jose Javier Egurrola Beitia

Pablo Larreategi Makatzaga

Iratxe Olazaran De La Peña

Malen Sarasua Aranberri

Ane Miren Zaldua Huici

Bazkide laguntzaileak:

Ausolan

Batz

Cikautxo

Eika

Eroski

Kautenik

Maier

Mondragon

Bazkide akziodunak:

Lea Artibai Ikastetxea

2024 URTEKO TXOSTENA



MEMBER OF BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

#PertsonentzakoTeknologia

ELIKAGAIEN TEKNOLOGIA

Elikagaien Diseinua | Esneki Zentroa
eat@leartiker.com
+34 946 16 90 89

POLIMEROEN TEKNOLOGIA

Osasuna | Garraio Jasangarria
polymers@leartiker.com
+34 946 16 90 89



leartiker.com

